

AURREKONTU ETA KONTABILITATE ZERBITZUA

Txosten zk.: 09/2021/037

KONTROL EKONOMIKOKO TXOSTENA, PROIEKTU HONI BURUZKOA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ALDATU EGITEN DEN BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN MARTXOAREN 22KO 60/2011 FORU DEKRETUA, GIZARTE INKLUSIORAKO LAGUNTZA BEREZIA ARAUTZEN DUENA.

Txosten honen xedea da ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-eragina ebaluatzea, kontuan izanik 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 143. eta 144. artikuluetan ezartzen dena, Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuaren eskumenekoak diren alderdietan.

Foru Dekretu proiektuaren xedea aurrekontuko partidaren kreditu-mugari eta diru-izendapenari dagokienez, 2011ko martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duena, aldatzea da.

2021 urteko ekitaldian egin diren laguntza bereziaren ordainketak kontutan hartuta, beharrezkoa da aurrekontuaren diru-izendapena aldatzea, urriko hilabeteko ordainketei aurre egiteko. Zentzu honetan, aurrekontuaren diru-izendapena 55.000,00 eurotan gehitzen da.

Horrenbestez, Foru-Dekretu horren babesean ematen diren gizarte-inklusionarako laguntza berezien zenbateko osoa jatorrian zuen muga geratuko da 2021eko ekitaldian: MILIOI BAT SEIEHUN MILA euro (1.600.000,00€).

Aurrekontu-eragina ekitaldian

Proposamena egin duen sailak aurkeztutako memorian jasota dagoen bezala, aurrekontuko gastu-partida ukitua 2021ekitaldiko 0903/231110/46100 2007/0265 gastu-partida da, eta zenbatekoa, 55.000,00 euro.

SERVICIO DE PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD

Informe nº: 09/2021/037

INFORME DE CONTROL ECONÓMICO SOBRE PROYECTO DE DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR EL QUE SE MODIFICA EL DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA 60/2011, DE 22 DE MARZO, REGULADOR DE LA AYUDA ESPECIAL PARA LA INCLUSIÓN SOCIAL.

La finalidad de este informe es la evaluación de la incidencia económica, financiera y presupuestaria, según lo establecido por los artículos 143 y 144 del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, aprobado por el Decreto Foral Normativo 5/2013, en aquellos aspectos que son competencia del Servicio de Presupuestos y Contabilidad.

El objeto del proyecto de decreto foral es modificar, en lo que respecta al límite de crédito y a la asignación de la partida presupuestaria, del Decreto Foral 60/2011, de 22 de marzo, regulador de las ayudas especiales para la inclusión social.

Habida cuenta de la evolución de los pagos de la ayuda especial a lo largo del ejercicio 2021, se hace necesario modificar la partida presupuestaria vinculada a la misma de cara a hacer frente a la mensualidad del mes de octubre. En este sentido, se incrementa esta partida presupuestaria en 55.000,00 euros.

El importe total de las ayudas especiales para la inclusión social, que se conceden al amparo del citado Decreto Foral se establece, en el límite en origen para el ejercicio 2021, en la cantidad de UN MILLÓN SEISCIENTOS MIL euros (1.600.000,00€).

Incidencia presupuestaria en el ejercicio

Tal y como consta en la memoria aportada por el departamento proponente, la partida presupuestaria de gasto afectada es la 0903/231110/46100 2007/0265, del ejercicio 2021 y un importe de 55.000,00 euros.



Foru dekretua ezartzearen ondoriozko gastuek ez dute ekarriko aurreko ekitaldietan kudeaketarako ezarritako gastuak areagotzerik, ez baita behar izango giza baliabide eta baliabide material gehiago. Foru dekratuaren kudeaketa egiteko, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren baliabideak erabiliko dira, eta ez da beharrezkoa izango ezein garapen informatiko egitea.

Gizarte inklusiorako laguntza bereziak, jarduketalerro hauen barruan daude: «inklusiorako prozesuak ekonomikoki sustatzea (2. helburua)» eta «inklusioa bultzatzea laguntzak emanez (1. jarduketa-lerroa)»; era horretan, baliabide ekonomikoen faltari egin nahi zaio aurre, horrek egoera indibidualak kaltetzea ekarri baitezake eta gizarte-bazterketako egoerak sortu edo larriagotu baititzake. Ondorioz, uste da funtsezkoa dela gizarte-bazterketako egoeran dauden adinekoei prestazio ekonomikoak ematea, egoera hori arintzeko. Hori guztia gizarte inklusiorako laguntza berezien kudeaketaren bidez egingo da.

Eragina aurrekontuen egoeran

Ez du eraginik aurrekontuen egoeran.

Ukitutako gastu-programarekin lotuta dauden jadaneko aurrekontuaren helburu, adierazle eta ekintzen gaineko eragina

Ez dago aldaketen beharrik 231110 aurrekontu-programan aurreikusitako helburu, adierazle eta ekintzetan.

Los gastos de implementación del Decreto Foral no van a suponer un aumento de los gastos establecidos en ejercicios anteriores para su gestión, ya que tanto el personal como los medios materiales no se incrementan. La gestión del Decreto Foral se realizará con los medios propios del Servicio para la Inclusión del Departamento de Empleo, Inclusión social e Igualdad y no se requerirá ningún desarrollo informático.

Las Ayudas Especiales para la Inclusión social se enmarcan en la línea de actuación “Impulsar económicamente procesos de inclusión” (objetivo 2) y “Favorecer la inclusión mediante la concesión de ayudas” (línea de actuación 1), así, se pretende suplir la carencia de recursos económicos, que puede acarrear un progresivo deterioro de situaciones individuales y que puede causar o agravar situaciones de exclusión social. En consecuencia, se considera de fundamental importancia la concesión de prestaciones económicas a personas mayores de edad, en situaciones de exclusión social, que ayuden a paliar estas situaciones y que se desarrollará mediante la gestión de las Ayudas Especiales para la Inclusión Social.

Incidencia en el escenario presupuestario

No tiene incidencia en el escenario presupuestario.

Incidencia en los objetivos, indicadores y acciones del presupuesto en vigor asociados al programa de gasto afectado

No requiere cambios sobre los objetivos, acciones e indicadores previstos en el programa presupuestario (231110).



Ondorioa

Kontuan izanik arestian azaldutakoa eta 132. artikuluan dioena abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuak, zeinaz onesten baita Aurrekontuen Araudi Orokorra, bai eta eskuragarri dagoen dokumentazioa ere, ALDEKO TXOSTENA ematen da foru-dekretu proiektu hau izapidetzeko.

Conclusión

De acuerdo a lo expuesto anteriormente y al artículo 132 DF 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario y a la documentación disponible, se emite INFORME FAVORABLE para la tramitación de este proyecto de decreto foral.

PROPOSAMENA EGIN DUEN SAILAK AURKEZTU DUEN DOKUMENTAZIOA

- Foru-dekretu proiektua
- Justifikazio-memoria

DOCUMENTACIÓN APORTADA POR EL DEPARTAMENTO PROPONENTE

- Proyecto de decreto foral
- Memoria justificativa

Sin./Fdo.: KOLDO ARTARAZ MARTIN - 2021-10-13
AURREKONTU PLANGINTZA ETA EGONKORTASUNERAKO ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA

Sin./Fdo.: KOLDO ZABALA BILBAO - 2021-10-13
AURREKONTU ETA KONTABILITATE ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A DE SERVICIO DE PRESUPUESTOS Y CONTABILIDAD